PR-Gi 2004

Ausa - Gaztelu ibilbidea

10,7 Km / 3 h 40 min

NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.

Profila
Perfil

PR-Gi 2004

Ausa - Gaztelu ibilbidea

Ibilbide honek gerturatuko gaitu Ausa-Gaztelu mendiaren puntan dauden gotorlekuaren aztarnetara, Larraitzeko aisialdi gunetik ez oso urrun eta, bide batez, beste garai batzuetara ere bai. XIII. mendean eraiki zen gotorleku itxurako egitura hau, zelatari edo zaindari postu bat zen Gaztelako eta Nafarroako erresumen arteko mugan. Artxiboko dokumentuetan ageri denez, azienda nafarrak bazkatzen ziren garai haietan Aralarko barrutietan, eta Gaztelako indarrak sartzen ziren haiek bahitzera. Talaiatik, adarren soinua baliatuz, abisua ematen zen aziendak bildu eta toki lasaiago batzuetara erretiratzeko. Panoramika zoragarria da.

El recorrido nos acercará a los restos de la fortaleza existente en la cima del monte Ausa-Gaztelu, no muy lejos del área de recreo de Larraitz, para adentrarnos en otra época ya pasada. Esta construcción erigida en el siglo XIII, era un puesto de vigía sobre la frontera entre los reinos de Castilla y Navarra. Según aparece en documentos de archivo, en aquellos tiempos la hacienda Navarra pastaba en Aralar y las fuerzas de Castilla hacían incursiones para hacerse con ellos. Desde estos puestos se avisaba con el cuerno para que se recogiera el ganado a lugares más seguros. Evidentemente, es un lugar con una panorámica maravillosa.

Interes puntuak | Puntos de interés

AUZA (GAZTELU): XIII. mendean, 901 metroko tontor honetan, kastro bat zegoen nondik Nafarroaren eta Gaztelaren arteko muga zaintzen zen. Gaur egun, 7 metroko diametroa duen, eraikin horren arrastoak oraindik ikusgai dira. Aralarreko beste tontorretatik pixka bat urrundua dagoenez Larrunarri (Txindoki) ikusteko talaia paregabea da, baita Gipuzkoako beste txoko asko gaikaldetik miresteko ere.

AUZA (GAZTELU): En esta cima de 901 metros había, en el siglo XIII, un castro desde el que se vigilaba la frontera entre Nafarroa y Castilla. Hoy en día todavía son visibles los rastros, de 7 metros de diámetro, de aquella construcción. Al estar un poco alejada del resto de cimas de Aralar es una atalaya inmejorable para ver al Larrunarri (Txindoki), como para admirar otros rincones de Gipuzkoa desde lo alto.

BIDEA BASOAN ZEHAR: Gipuzkoako mendiak bide eta bidezidorrez beteak daude. Gehienak bertan emandako aktibitate ekonomiko desberdinetara egokituak daude (edo zeuden), izan hauek legezkoak ala legez kanpokoak: garraioa, artzantza, estraperloa edo tropen mugimenduak. Gaur egun, oinezkoek, gehien bat, erabiltzen dituzte modu honetako homologatutako bideak. Bide hauek basabide horiek diren ondarea mantentzen saiatzen dira.

SENDA POR EL BOSQUE: Los montes Gipuzkoanos están llenos de caminos y senderos. La mayoría de ellos están (o estaban) adaptados a las distintas actividades económicas a las que servían fueran estos legales o ilegales: transporte, pastoreo, contrabando o movimiento de tropas. Hoy en día, son los senderistas, en gran medida, los usuarios de este tipo de senderos homologados. Estos senderos tratan de mantener el patrimonio que son esos caminos.

BIDEA LARREETAN ZEHAR: Artzainek ardiak maiatzean igotzen dituzte lur garaietara eta urrian jaitsi eremu epelagotara. Mugimendu honi "trasterminancia" deritzo eta, bailaratik mendira (edo alderantziz) egiten den ganadu mugimendua da. Funtzio ekologiko garrantzitsu bat betetzen dute beste modu batean galdu egingo liratekeen bazka baliabideak aprobetxatuz. Mendien garbiketa lan garrantzitsu bat ere egiten dute

SENDA POR LOS PRADOS: Los pastores suben las ovejas en mayo a las tierras más altas y las bajan en octubre a las zonas más templadas. A este movimiento se le llama trasterminancia y es el movimiento de ganado que se realiza del valle a la montaña (o al revés). Cumple una función ecológica importante aprovechando los recursos forrajeros que de otra manera se perderían. También realizan una importante labor de limpieza en los montes.

ALMITZETAKO BORDA: Horrelako bordetan egiten zuten bizitza artzainek artaldeak goiko larreetan bazkan zebiltzan bitartean. Barruan hiru gela aurki daitezke: Sukaldea, logela eta gaztandegia. Horietaz gain borden inguruan ondorengo elementuak ere ageri ziren sarri: baratza, zakur tokia, zerritegia, oilategia, eskorta edo egurtegia. Ateetan egurrezko gurutzeak eta eguzki-loreak jartzen zituzten ekaitzak eta sorginkeriak urruntzeko.

BORDA DE ALMITZETA: Los pastores vivían en bordas similares a esta cuando sus rebaños pastaban en los prados superiores. En el interior podemos encontrar 3 estancias: la cocina, el dormitorio y la quesería. Además de esos elementos comúnmente alrededor de las bordas se podían encontrar: una huerta, una perrera, una pocilga, un gallinero, un redil o una leñera. En las puertas se colocaban cruces de madera y carlinas para espantar a las tormentas y las brujas.

MIDE

Ingurunea Medio	Ibilbidea Itinerario	Desplazamendua Desplazamiento	Ahalegina Esfuerzo	MIDE ordutegia Horario MIDE
2	2	3	3	3 h 40 min
Arrisku-faktore bat baino gehiago dago Hay más de un factor de riesgo	Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena Sendas o señalización que indica la continuidad	Bide mailakatua edo zoru irregularra Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares	Itik 6 ordura bitarteko ibilaldi jarraia De 3 a 6 horas de marcha efectiva	((112)) SOS DEIAK

+ info MIDE
www.mide.montanasegura.com

Bide-markak
Señalización

Ibilbidearen jarraipena Continuidad de sendero	Norabide aldaketa Cambio de dirección	Norabide okerra Dirección errónea

+ INFO

Praktika onen dekalogoa
Decálogo de buenas prácticas

www.gipuzkoanatura.eus
Trackak eskuragarri
Tracks disponibles

Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

Txakurrak beti lotuta eraman.
Los perros deberán ir atados.

Saiatu mendira bakarrik ez joaten.
Intenta no ir nunca solo al monte.

Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.
No abandones ni entierres la basura.

Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

Animaliak larratzen
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

Legenda
Leyenda

Ibilbide hasiera
Inicio de sendero

Ikuspegi panoramikoa
Vista panorámica

Aisia-lekua
Area recreativa

darazi

ZALDIBIAD UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Mendizale Federazioa